

# Baloreak ala balioak?

• JOXE AZURMENDI •

[PENTSAERIA]

**D**iskurtso moralak dominatzen du diskurtso publikoa eta, beraz, dominazio tresna bat bilakatu da bera. Dominazio tresna denik inoiz eman gabe baina! Gu guztion esizentzia eta geure-geure diskurtsoa irudiz da diskurtso morala efikazkien Boterearen tresna, Boterea bizitza publikoan zuriz jaxten duena, terrorismoaren aurka baldin bada oroz gain. Diskurtso moralean Boterearen eta populuaeren komunio intimoa bere gorenara eta estasiera iristen da. Boterea hor errotik itxuraldatzen da, izpiritualedu egiten da guztiz. Populu gaixoa Boterearen abaroen zeruak abaroturik sentitzen da. Dena harmonia, mundu posibletarik hobereanean bizi gara.

Diskurtso moralak oso maite du balioak aipatzea. Balioek harrotzen gaituzte. Etikaren arrastorik ez duten horiek ez bezala, guk balio goiak dauzkagu. Francok, horda boltxebikien aurka, zibilizazioa salbatu nahi zuen (horregatik egin zuen gerra zibila); demokraziek balioak salbatu gura dituzte. Balioak dira ebangelio berria. Haurrek, bada, eskolan, erlijioa-eta agian ez (gu ere modernotxoak gara ja), filosofia ere ez (horixe ez dakit zergatik), baina balioak bai, haurrek balioak ikasi behar dituzte - nora joango ginateteke bestelara!

Ikastoletan «baloreak» esaten dute, balioak esateko. Egia da, Beriainek-edo, hala idatzi omen zuela behin XVII. mendean, eta besteren batzuek ere agian hala idatzi dute geroago. Nik neuk «balorea behar da hori egiteko» bezalakoak ikasi nizkion amari, non balorea adorea zen edo lotsagabekeria. Baina sekula ez nion entzun «aban horrek ez du balorerik ebakitze» edo «giak hainbeste peseta balore du».

Norbaitetik esplikatzeko dit, hain zuzen horregatik esaten omen dela ikastoletan «balorea», zentzu etikoa. Hori adiera izpirituale ongi berezteko eta «balio» ekonomikoarekin ez nahastearren. Garbi, utilitarismo ekonomiko

eta materialekin lardastu gabe nahi ditugu «baloreak». Horrela, irakasteko testurik oraindik euskaraz ez dagoez, erdarazko materialak erabili behar izaten ditugu; baina esparruak hobeto berezita dauzkagu euskaraz, eta «valor económico», «valor social», «valor moral», etab., gaztelaniazko nahasketak, guk oso erraz konpontzen ditugu (geure usitez). Ba-tzuk baloreak dira eta besteak balioak. Eta gure amaren balorea esateko, adorea esan eta kito. Dena bere lekuan.

Zein da, ordea, balio edo baloreen lekua? Ni ez naiz —Euskaltzaindiak eta euskaltzainek denoi behin eta berriz, gupidagabeki, eragiten dizkiguten amorraldi periodikoak gorabehera— hitzen eztabaidak jendaurrean atera zalea, eta balore ala balioen kontua ere ez zait arazo lexikal gisa gehiegi interesatzen. Gogoratzen naiz, jende bat oraindik euskara garbian «akeita» esaten gogor enpeinatzaren zenean. Arestik nola irri egiten zuten, munduan kafeari kafea esaten ez zion hizkuntza bakarra, euskara zela. Aurki izango da, hor nonbait, balio izpiritualek eta materialak bereziten dituen bakarra ere. Bi munduen dualismo platonikoa gainditua omen dugun honetanxe hain zuzen.

Elementala, Mr. Watson: balioak balio egin behar du. Bai latinezko «valor» eta bai harekin itzuli izan den «ak-sios/aksia» grekoa (hortik *axiologia*: «Balorearen teoria. Balore etiko, logiko, estetiko eta mistikoak aztertzen ditu» Elhuyar-en *Hiztegi Ertziklopedikoaren* arabera), esperientzia sozial errealeko adigaiak dira beti, eta ekonomikoak funtsean: gauza baten prezioa, zerba-

igetarik saria/zigorra merezitzea, etc. Jada Homerok ezagutzen duen kontzeptua da. Esperientzia sozialak eta gehienbat ekonomikoak diktatu du, gi-



*Ez dago ja goseari jaten eman, magrebria etxean hartu, presoak askatu beharrik.*

*Onak izateko, izan gabe, aski da balio haiekin mistikoki identifikatzea*

zartean zein den «balio» duena eta zein «deusbalioa», Leizarragak esango lukeen bezala; beraz, zeinek «balioak» dauzkan eta «on/iritzi» soziala «merez» duen. Are, erradikalkiago, zer den balioa eta balio izatea bera. Harremanak eta bizitza ongi eta gaizki kategorietan kontsideratzea.

Anbigua dela? Errealitateak jaio diren balioek baka-

rik lagun diezagukete errealtatea moraliki menderatzen. Errealitatearen barruan konprometitzen. Ez, errealtatearen gainetik onak izaten - diskurtsoan. Berritio gogoratu beharko ote dugu, abere hutsa dela gure jenero hau? Izugarriko joera du gizonak, bere gizatasuna aingerutzeko. (Bere arrazoimena, bere etika...). Mizkinkeria aingerutiak utzi eta, etikaren maisu anbigua giza esperientzia dela, historia dela, onartzen badugu, ezin izango dugu, txaroleko «baloreak» omen diren irakatsi dizkiguten «balio» abarkaduentzat, eskerrona baizik sentitu. Lanean, borrokan, jolasean ikasi du tximinoak gizakia izaten. Harreman komertzialean eta lan industrialean ikasi ditu balio modernoak. Kritikak kritika, balio asko irakatsi dio lan kooperatiboak Euskal Herri berriari. Ez da harreman ekonomikoetan, non gutxienean ikasi dugun, etika zer den. Argilun artean ihardunez beti, sekula ez argi hutsetan. Balioak, izan, gizakiaren historia legez, erremedio gabe ekiboko-

ak dira. Susmoa dut, hortaz, ekiboko linguistikoa ekidinez, errealtatearen anbiguoetasuna ezin jasatea ezkatuta nahi dugula.

Beti nahi dugu pentsatu, antza, behetik gora ez, goitik behera ikasten ditugula gauza «salbaziorako» garrantzikoak, Lurdesko Ama Birjina bezala zuriz jantzita zerutik agertzen. Tradizio zaharra da hori. Bertutea goian dago. Behean miseria eta bekaturia baino ez. Hala etika, zeruan eta zerutik sortua nahi luke askok oraindik, goitik behera mundua gogoratzen. Balioak ere («baloreak»), zeruko izarrek bezala irudikatzen ditugu, orbangabeak, transzendenteak, munduarekin nahastu gabek, ez dakigu nondik jalgiak - historiari eta esperientziari behintzat ez, eta inoiz zikindu gabe historian eta esperientzian.

Geuk horrela pentsatzen dugun artean, alferrik samar da salatzea, diskurtso morala politikoei egiazko errealtatea ezkatutzeko eta engainatzeko erabilten dutela. Geure kultura guztia da aurrea bere burua engainatzen duena, etika eta balioak, mundu narraz honen gain-gainetik, erreinu zerutar batean hipostasiazten ditugunean, balioak eta egunoroko bizitza elkar ukitzen ez duten bi errealtate osoki diferente bihurtuz honela, jatorri zeharo ezberdinekoak (lehenago erlijioarekin egin genuen bera). Balioak beheko mundu honetatik kontsolatzeko «beste mundu» bat bilakatzen dira. Mundu platoniko bat. Ez dago ja goseari jaten eman, magrebria etxean hartu, presoak askatu beharrik. Onak izateko, izan gabe, aski da balio haiekin mistikoki identifikatzea. Aski da diskurtsoa sinestea. Politikoei, bada, ez dute besterik egiten, engainatuak izateko gure nahikaria nahikoa ongi ordeztu baino, gertakarien burla zinikoz bai, baina moralina eta «balore» gozoz urasetzen dutenean beren diskurtsoa, gure kontzientzia onak ferekatuz.